

# ABEREA MAITE DUNA GIZON ZENTZUNDUNA

(Azkeneko indar-neurtzeetan *aldeera* irabazia.)

## BEARRENETIK ASI

**A**BEL gorriak (bei, idi, txal) aiña etekin ematen duan abererik ez da arkitzen Gipuzkoan.

Basetxetarra, beyekin eta beyagatik bizi da.

Asto, zerri, ollo t'abar urrengo laguntzalleak ditu baserritarrak. Beye du maitena Gipuzkoan lurgiñak; beyari otخان otخان itz egiten dio zentzuna balu lez; sukalde alboan urrutienak etzantza damayo (ematen dio), eta elkatura (janan) goxoa opa izaten dio.

Zenbat aldiz, baserritar senar-emazteak elkarrekin itz trukutzen entzun ditugu: gizona sorobelardietatik olloak usatzen; andrea olloen alde mintzatzen, esnea ez erok arraultzak ere goxotan jaten dirala adirazten.

Asi gaitezen ba abel gorriaz zerbait azaltzen.

## NUN ZEIN BEI-MOTA BEAR DAN

Erri guzietan bei mota (clase) berdiñak ez dira on. Usurbill, Oyarzun eta Asteatsu'rako eder eta egoki diran beyak ez dira on Ezkio. Itxaso, ta Gabiri malkarretako.

Beterriko ta Goyerriko lurrak, larrak, belarrak eta janak ez dira berdiñak, ez etekiñetan, ez indar-kemenaz, ez iran penez.

Aragia, esnea ta larra kentzen zayo beyari, eta etekin abek berdin ez dira izaten Donosti aldean eta ain errez salmena ez diteken erritan.

Beterriñ beya nai dute, agian esnea kentzeko. Goyerriko erri asko-

tan gertatzen da emeaz ezin baliatu izatea asko, janaro urrigoak diralako ez ezik, beya malkardi lurretan lanean dabillelako eta dantxoia ere (esnea) nora saldurik izaten ez dalako.

Lur orube aziak dauzkanari ukullu (beitalde) aundia dagokio, erdi kaletar, erdi basetxetar bizi danari bizpairu bei bakarrak.

\*  
\* \*

Egunaz lan neke aundiak ikusten dituan beyak irutatik bat edo erdia, esne gutxigo ematen du.

Lanetik lanera ere bada aldea. Malkardiak gora ibilli ala soro-zelayan lan ariñean jardun ez da berdin elearentzat (ganaduarentzat). Lan-neke asko ta jana urri daukan beyak okela ikuzgarririk ez du agiri izango, esne pirrin txol bat baño askoz geigo etzayo kenduko; ijarea zulo galantakin eukiko du, eta saltzeratzekotan, etekiñ gutxi emango du.

\*  
\* \*

Belarditzak ugari, aldan guztia jarri bear ditu, beraz, nekazari burudunak eleaz edo ganaduz ongi ateratzeko.

Ondo *guarnatzen* dan abelgorria (ta beste edozeni ere bai) zernaitarako gauza da; lanerako, esnea emateko eta aragiz ornitzeko.

\*  
\* \*

(G) Oñati beya da goyerrin geyen maite izaten dan beya; bei gorri txikia baño sendo ta bizkorra, esnea jetxitzeko, malkardietan bizkor juateko soro lur lanak maneatzeko.

Zoritzarrez, emen oetako alagalea edo egokia dan Goñati-beya nasutzen eta beraka omen dijua erbezteko endaz (arrazaz) umetzen dutelako ezeren kupira ta begirazun gabe.

Zumarraga'ko Rodrigo-Larramendi'tar Koldobikak (Luis), eraslea (veterinario) azkarrak dio Gipuzkoako Erkantu edo Diputazioak dagizkian aurrerapen onuratuaren indarrak bestaldetik galtzen dirala bei-enda kidekoak elkartzen ezdiralako.

## ERBESTETIK NOLANAI BEI-MOTAK

### GIPUZKORA SARTZEAK DAKARZKIEN KALTEAK

Batean Basurton (Bilbao alboan) beztean Solares'en (Santander'en) urrengoan Asturias'en izan dirala, ta emen Zumarraga'ko gelunetik (es-taziotik jetxi-ta daramazkite beruntz Ordizia (Villafranca) ta Tolosa'ra

bei-iri elemenak, txipeleta edo mitxirriya margo (kolore) guztitakuak, zuriak, nabarrak, beltzaranak, gorristak...

Erkantua ari da (Diputazioa) alegiña bazetxetarrei sartzen eta irakusten zein nolako zezenak aukeratu bear dituzten zein bei mota dan egokiena arako ta onerako, beterrirako ta goierirako, lan zelaietarako ta malkarretarako; zer belarrazi ta uzta (labore) erein bear dituzten...

Erakuzte ederrak eta onurazkoak (provehuzkuak) dira oyek, noski. Bañan, Asturias, Santander aldetatik Gipuzkoa'ko salerosleak (tratalari) erruki ta txantxa gabe dakarzkiten bei-idi talde samalda aundiek Diputazioaren lan garbia ozo nastutzen dute.

¡Zenbait bei gaixo edo eri, gaitzdun sartzen ote da Gipuzkoan amabostero! ¡Zenbat enda-arraza nastu, elkartu ta guintzaten ote dira emengo ukulluetan!

Ezagutzen degu gaitz dala sal-erozpenak erbestetik eragazten; baño beñepein, Gipuzko sarreran miatu bear litzake (ateman edo reconozitu) bei-talde ori, onela sartzen dan aiña naste-marraste etorri ezdakigun.

Nik nerez oartu izan detan gaitz au Gipuzko'an dirakurtk (irakurtzen det) Naparrun ere jazotzen edo gertatzen dala.

Onela dio ba «Revista Veterinaria de España» 12 garren zenbakian, 551 garren ingoskian (paginan). «Varias son las razas que llegan a Navarra por la frontera francesa y cruzadas sin orden ni concierto con nuestros animales bovinos ya indefinibles de la region dando lugar a la heterogeneidad de caracteres, a la mezcla que hoy día se advierte en la Ganadería vacuna navarra.

»Las principales razas utilizadas han sido la Suiza «Schwitz», la holandesa y la «Simanthol.»

FELIPE AYERBE

(Jarraituko da.)

# ABEREA MAITE DUNA GIZON ZENTZUNDUNA

(Jarraipena.)

## AUÑA-BEYAK

Auña beyak (raza pirenaica) dauzka batatz beste: Soinkurutzera, 1,35 metro; gerrira, 1,69.

Ezurrez aundi ta bes-ankaz lodiak dira: jaten ez dira milizkak eta asko bearrekoak ere ez; lanerako gogorak, urte asko jotzen dituztenak eta aragi edo geli adoretsua ematen dutenak. Burua ez oso aundi, muturrak zabalak gorristak inguruan uztai zurizka dutela, bizkar makturak zerbait lepoa narrutsua, isetsa edo buztana ondoan lodia, bizkar gaiña zabal-tontortsua dute ta lanerako berarizkuak dira.

Margoz (kolorez) ez dira guziak kidetsuak: zuri gorristak asko.

## SUIZA SHEWITZ UTSA

Suiza zezen au, auña beyakin elkartu edo kurutzetu da asko Gipuzkoan, ta oso enda mota (raza clase) ona ondoren eman du. Bizkain ta Naparrun ere suiza shewitz zezena oso ugaltzen ari dira ta abelgorria edertzen.

Suiza bEya Euzkadi lurrean errez oitzen da ukulluan naiz landan (kanpuan) etxitzen du-ta. Zazpi litrotik bederatzi bitarte esne ematen du geyenera. Suiza beyak ondo elikatu ezkeru: urtero txaal bat kentzen zayo. Uztarrian ibiltzeko, naiz ordeka-zelai-lanan, naiz malkarrean, ez du atzerapenik izaten.

\*  
\* \*

Abelgorria sendatu, ugaritu ta edertzeko gauza bat oso bearra da endak aukeratzea (selección de razas) ta zezenak ere beiai dagokien endakuak izan ditezela.

Zezenak egunero umetze berdintsua egin bear du: egun batean bei asko ta bestean bat ere ez eramatea, ez da ongi, ez zezenarentzat ezta ere beiarentzat.

Zezena-gana beia eramaten danean au susara jarritakoan, natura ta umetokia garbi euki bear ditu beiyak.

Beia ernaro geratzen ezpada, zezenaren aitzaki jartzen du askotan basetxetarrak; baña beiarena izaten da errua batzutan.

\*  
\* \*  
\*

Beiyak umetze lan onetan, agertu bear det Gipuzko goyerriñ (beterriko berririk ez dakit) ikusten dan oitura itxusia.

Amar amabi urteko mutill eta neskatillak eraman oi dituzte goyerriar txerri, antz t'abar zerri apoteagana, akerra-gana t'abar.

Oso zatar itxusi iruditzen zait ume kondo oyek abere-elkartzeta-tara bidaltzea, ta basetxetarrak gai oneraz daukaten zabarkeria oso da lotsagarri.

Gañera, abereak ez dira umetu bear albait (garai aldi estu-ren bat izan ezik) igande-jayetan, len len euskaldunek gordetzen zuten oitura eder oni eusten zayola-rik.

## BEI ERNARIAK UMEA EZ JAURTITZEKO (BOTATZEKO) ZER DAGITEN BASERRITARRAK

Bei batzuk ernari ezin egoten dira: sabelean daukaten umea bota egin bear guzokatik.

Bei eros-saltzalle gogor bati entzun izan dizkiot beia ernari geratze-ko egiten dituzten osakayak:

1.<sup>a</sup> Litro bat pañar sartzen zayo muturretik umea bota nairik dabilen beiari: mozkortzen da, ta indarka egitea galerazi egiten zayo.

2.<sup>a</sup> Ernari egon nai ezduan beya, erreka edo ibai ertzera eramaten da, ta itxu-mustuan bultza ta botatzen da beia ibaira. Uretan eramaten duan larri-ikaraz, indarrak gutxitzen zaizko ta txala barruan geratzen zayo.

3.<sup>a</sup> Arta-buru kozkolaren erdian, zurdea txiki txiki egin edo ebaki-ta sartu. Jateko eman beiari arta-buru ori, ta estulka ito bearrean ekiten dio. Larri onek umea botatzeko indarkak aaztu eragiten dizkio beia-ri.

4.<sup>a</sup> Eremu ezurretik egalera oiñ geldian soka lotu: gero urratsa

edo pausoa egiten asten danean, egalak estutu, ta saiñak tira egiten zaizko antxika (galopan) asten dalarik.

Orrela, irabio aundia izaten du beiak.

\*  
\* \*

Beiari umea zabelean geratzeko asmaketa oyek parregurea emango dioe onelako gauzarik aditu ezduenai, bañan len aitatu detan Arratibel-dar Pakunda tratalari orrek esan zidan neri, urte batean, osakai onekin, bost bei antzu ernari gelditu zituala bestela gelditu ezin zienak.

### EUKADI-KO ABEL-GORRIAK

Iztuetak (Gipuzkoa-ko Kondaira, 167) izen abek paratzen edo ezar-tzen ditu:

<i>Zezen.</i>	<i>Bigaintxa.</i>
<i>Idi.</i>	<i>Txala.</i>
<i>Zekor.</i>	<i>Bigain.</i>
<i>Idosko.</i>	<i>Aretxe.</i>
<i>Idigai.</i>	

Len, goyen, aitatu detan *Goñati beya* da emen Gipuzkoako enda (arraza) jatorra ta goyerrin baserri aldapatsu malkardietarako egokiena.

Zazpi arra t'erditik kana bira gerrian neurria duten ganadu gorriak dira Oñati bei gogor oyek.

FELIPE AYERBE

Jarraituko da.)



# ABEREA MAITE DUNA GIZON ZENTZUNDUNA

(Jarraipena.)

## BEI ZERTZELADAK

Bazkak (janak) eleari (ganaduari) illajea asko itxuratzen dio, eta illajetik igartzen zayo askotan beiri zeñ adiurri (temperamento) ta euspenetakoia dan. (La pigmentación (illearen margo edo kolorea) es hasta cierto punto reveladora del temperamento y de la resistencia a algunas enfermedades.) Bei gorriak beltzaranak baño etikan (tisiko) le-nago jartzen dira, baño ukullu garbiak eta larrean landetan (kanpotan) beia ibiltzek asko esan nai du.

(Las enseñanzas recogidas por Guerin en una encuesta (parantze-ratik artutako itz au baño egokiagorik ez aldute asmatzen gastelzaleak) sobre la resistencia de los bovideos a la tuberculosis, le autorizan para concluir:

1.<sup>o</sup> Que la tuberculosis bovina parece cebarse con más intensidad en las razas rubias, pero que la estabulación juega el principal papel en contagio: para las razas mantenidas al aire libre, la movilidad tuberculosa descende al minimum.

2.<sup>o</sup> Que entre las razas rubias, los que marcan una tendencia neta al aclaramiento (albinismo), o cuya pigmentación evoluciona hacia el rubio rojizo, tinte comparable al que llamamos rubio veneciano en el hombre, tiene una predisposición cierta a contraer la tuberculosis. Estos sujetos transmiten a los productos de los cruzamientos a que están sometidos, una parte de su receptibilidad, G. Guerin. «Les terrains prédisposés a la tuberculose chez les Bovidés.» Conferencia internacional de la tuberculosis. Bruselas. 1910.

Beia-ri, aldan etekin guzia kentzeko Batzaldiak (concursos) egin oi dira.

Saint-Michel en L'Herm (Parantzen), beiak era ontan ederetxitzen dituzte:

- 1.<sup>o</sup> Zenbat guri (manteca) urtean egin leiken esnez.
- 2.<sup>o</sup> Esnea-ren ugaritasuna.
- 3.<sup>o</sup> Beiaren egitamua (estructura).
- 4.<sup>o</sup> Beiaren enda garbia eta illajea.
- 5.<sup>o</sup> Beiak izan dituan aurreko ar-emeak.

Batzondekoak (comisionaduak) erriz erri ukulluak (beitaldeak) aztertzen omen dituzte eta urtean baño urtean esne gutxigoz guri edo manteko geigo kendu omen die beiai, 1909-garren urtean egin zan guri-batzaldian (curso mantequero) agertu omenziran beyak (marchina-enda) 3.800 litro esne kendu zitzaenak, ume egitetik ume egite bitarte. Eta guri (manteca) kilo, 14 litro esnekin bakarrik egin izan ziran bei motak bildu zirala.

Deux-Sèvres-en (Parantzen) negu-ko iru lau illabetetan, kilo bat manteka egin omen dute *16 litro esnekin*.

Deux-Sèvres-ko Erasle edo veterinario M. Sansseau Jaunak 35 bei adiñ (edade) banakatakuak miatu edo aztertu zituan eta etekiñ oek eman zituzten:

Urteko esnea, 2,725 litro.

Kilo bat guri egiteko esnea batatz beste, 16 litro.

Zaldalea, zagalea ta belar ondua ugari jan bearko dute, orregatik, etekin ori kentzekotan.

Goyerrin ere asi dira menditarrak guria (mantequilla) egiten. Amezketan, Orendain aldetik guri azko eramaten dute Tolosa-ra.

Ezkio, Itxaso eta-en ere egiten da guria gutxi asko. Bei-en esneak lo-mean alde andia izaten dute; batzuen oso koipetsua, bestiena urtsu-agoa. Berezkoak ez ezik, janak ere asko eragiten dio beiari, esne nola-kotzan (cualidades).

Ortizaz (txala egin bearrian beiak ematen duan esnea) guriña agudo ta asko egiten da, baño ez aiñ ona.

\*  
\* \*



## SUIZA-KO BEIAK

Suizan daude guzira 1.300.000 bei (milloi bat eta irureun milla).

Bi sailletakoak dira bei oyek : bei beltzaranak (morenas) eta bei berrizkatuak (remendadas). Auetakoak geigo dira.

Bei beltzaranak (bataz beste) astuntzen edo pisatzen ditu bakoitzak 550 tik 600 kילו bitarte ori. Suiza sartaldean, Schwytz, Zug eta Luzerna-n daude beirik pisuenak: leku goyetan beyak pisu txikigoa dute.

## SCHWITZ BEI ENDAREN NEURRIAK

I'ranenfeld-en 1903 garren urtean egin zan Batzaldi Agerketan neurri abetxek jaso zituzten:

	<u>ZEZENAK</u>	<u>BEIAK</u>
Bizirik (bataz beste)	925 kilo	675 kilo
Gorpetz-luzeroa	1 metro 79	1 metro 65
Sorkurutzaño aundiroa (altura)	1 — 47	1 — 36
Ipur ezurreraño	1 — 49	1 — 41
Ankeen zabala	0 — 59	0 — 57
Buru-luzeroa	0 — 57	0 — 52
Ijara-ren zabaluna	0 — 587	0 — 492

Bular edo sabel jira metro bat, 95 zentimetro daukate bei oek.

«Arratoi» margodunek (coloredunek) dira ederrenak eta naiena izaten diranak.

Larrua ez dute biguñia, baño bai erabilkorra (flexible) illea, berriz, motza, kiskurra ez, eta bakan lepo inguruan.

Adar txuntxurak oristak, azkazal zuriak, muturra nabarra, itsaz edo buztan punta zuria, tanto zurostak zabeletik errepe arten dituzte Suiza Schwytz beyak Batzaldietan ez dituzte sartzen, Suiza-trakotzak.

Bei beltzaran onek urtean ematen ditu 2.800 litrotik 3 milla litro esne bitarte ori.

Litro bat esnez, 39 gramo gurin egiten da, eto kילו bat gurin (man-tequilla) egiteko 25 etik 26 litro esne bear dira.

Aragita-ko ta lanerako ain egokiak ez dira bei abek. («Tratado de Zootecnia, III. Los Bovinos», por P. Dechambre.)

*Durham* bei enda da Parantze Ingelar-da (Prantzi, Ingalterra). I-par Amerika t'alan geyena zabaldu dana.

*Durham* ori oso gizenkorra da, ta aragi ona azitzen du: amabost garren illabeterako bei itxura guzia artzen du *Durham* enda onek, eta ogeitamar illabete dituztenenak (iru urte baño len) ortz berri guziak agertzen zaizte.

Iru urtekin arategi-ra eraman oi dira bei enda abek. ¡Olacoxe batzuk bear dira baserritar gizaxoa agudo aberasteko!

London-en 1906-garren urtean egin zan batzaldian 1097 egun bakkarik zituan bei oetako batek (bi urte amaika illabete t'erdi) pisatu zituan 791 killo, ta euneko 70,13 etekin eman zuan. Italin eta Espanian *Durham* bei enda gutxi da.

FELIPE AYERBE

Jarraituko da.)



# ABEREA MAITE DUNA GIZON ZENTZUNDUNA

(Jarraipena.)

Republika-Arjentinan euzkeldun azko bizi dalako abelgorriz, emen jarriko ditut zertzelada batzuk.

Republika Arjentinan guzira zeuden, 1908 garren urtean, 29 milloi 116 milla 625 bei. Balio zuten onenbeste beyek 2 milla 65 milloi 108 milla ta 825 franco (edo pezeta bezelatzu).

Republika Arjentina-ko bei geyenak bialtzen dira Bolibi, Brasil, Uruguay, Peru ta Txile-ra. Suiza, Itali ta Portugal-a ere bialtzen dituzte bei batzuk.

Bei aragia zaltzen dute Arjentin-darrak zeziñetan edo gazitu-ta, izotz-tartean bilduta aragiari kemena edo adorea kendu-ta ere bai (extractos de carne).

1910 g. urtean

Arjentina-tik Ingalandara bialdu ziran	2.710.747	kintal aragi.
Leyarretan edo izotztutakua	1.336.755	—
Aragi gazitua (tasajo)	453.000	bei
Liebig Batzak (Compañía) potetan antolatu ta gordeak	185.000	—
Buenos Aires-en erailak (sacrificados)	1.555.000	—

## ZENBAT BEI DAUDEN LUDIAN (MUNDUAN)

Miloi	Kilometro laurki (cuadrado) bakoitzean.	Biztanle bakoitzeko.	
Laterri Batzan (UnitedStates)	71'25	9'1	0'94
Europa-Errusi-n	39'07	7'1	0,29
Errepublikak Arjentina'n	30'00	10'3	0,75
Doixlandan (Alemanin)	20'63	38'1	0'32
Osterreits-Ungari (Austri-Ungri)	17'67	26'1	0'34
Parantze-n	14'50	27'0	0'36
Ingalandan	11'63	36'9	0'26
Itali-n	6'21	21'6	0'18
Europa-Turki-n	3'50	20'6	0'56
Suezian	2'63	5'9	0'32
Errumanin	2'59	19'8	0'37
España-n	2'22	4'5	0'11
Bulgarian	2'03	21'1	0'47
Olanda	2'02	21'1	0'47
Dinamarka	1'84	47'1	0'71

Doixlandan (Alemanin) zakurren aragia ere saldu ta jaten da beiena ez ezik; nunbait an galestitzen ari dalako. Sajonian 69.400 libra txakur aragi saldu ziran 1913 g. urtean, *Revue pratique des abattoirs-ek* zionez.

Berlin-en dago Batza aundi bat (Compañía) erri txikitako beyak nola ugaldtu, sendotu t'edertu irakasteko ta diruz laguntzeko jarria.

Doixland-gobernuak ez du lagatzen Republika Arjentina-ko aragi-otzitua (congelada) Doixlandan sartzen; ber bertako beitzak ugaldtu dittezentzat.

\*  
\* \* \*

Dinamar-ko gobernuak errietan dauden «Abelgorri-Elkartasunai» diruz asko laguntzen die eta zezen-bei onak azitarako aukeratzen izugarri zayatzen da.

¡Gure baserritarrak, berriz zezen bateana baño besteana bei-susara eramatea erreal bi gutxigo lakatu (cobratu) ezkeru, merkena-gana eramango du beia, zezen-endaz batere kezkatu gabe!

Dinamarkan, etekiña-ren eretzean (proporción) bei irabaztea billatzen omen dute.

Orra nola didatzin (eskribitzen duan) P. Dechambret: «El rendimiento cualitativo sigue una marcha ascendente por efecto de la selección determinada por las asociaciones de cría y las sociedades de control. El valor de los animales se mide, no según el rendimiento absoluto sino conforme a la relación que existe entre éste y la cantidad de alimentos consumidos. Y esto es justo porque está en buena armonía con la idea que es preciso formarse de los animales que no son otra cosa mas que máquinas de transformación de sus primeras materias, los alimentos.

»La mejora de la raza obedece a la selección de los mejores animales, y son los únicos que se admiten para la reproducción». *Tratado de Zootecnia*, pag. 5 u 8.

FELIPE AYERBE

Jarraituko da.)



# ABEREA MAITE DUNA GIZON ZENTZUNDUNA

(Jarraipena.)

## OLANDA'KO GAZTAK

Bei-esnez gazta dagite (egiten dute) Olanda'ko baserritarrak, eta gero eitolatan (industritan) itxura ematen die.

50 milloi kilo gazta egin ta zabaltzen dira Olanda'tik urtero. Ingalandara geyena.

Olanda'n, Firisia ta Polders'ko beiyak dira jasorik aundiena dutenak.

Olanda'ko gaztarik ospetsuenen izenak dira:

*Gonda* (zabala 5 edo 6 kilokuak), *Edam* (Amsterdam'en ipar aldean dagon uria) eta *Cheshire* (ogei kiloko ogi birilletan saltzen da).

Olanda'ko guria (manteka) gatzitua (salada) saltzen da.

\*  
\* \*

Zer esan asko geratzen da oraindikan ele edo ganadu gorriaz; zezenak nola, noiz ta zein neurritz beiari bota bear zaizkan; beiak izan oi dituzten gaitzak, txaaala jayotzean beia ta txaaala nola zaitu bear diran, abar eta abar. Baño, euskeldun basetxetan ukullu zikiñ, illun, narratzak ikusten ditutalako, zerbait para (jarri) bear det ukullutzaz:

«Ganado vacuno», por González Pizarro. Guía práctica para su multiplicación, cría y explotación. Primer tomo de la Biblioteca del Ganadero»; liburu edo idazti'tik ateratzen ditut.

## ABELGORRIA UKULLUETAN EROSO EUKITZEKO ARTU BEAR DIRAN NEURRIAK

1.<sup>o</sup> Esne beyak eta arategirako beiyak elkarrekin nasi ez dira euki bear. Albait aldendu-ta.

2.<sup>o</sup> Lan beyak, batik bat, ukullu argian, aideatzen erreza dan tokian euki bear dira. Arnas berogĭ tartean ez dira egon bear; ukullu epela asko da.

3.<sup>o</sup> Etzauntza txukun, garbi, eroso ez daukan beia, ez da bear bezela atsedeten, etzaizka indarrak egiten. Azpiak maiz aldatu: ez dilla zimauro korotz tartean etzanda egon.

4.<sup>o</sup> Ukulluk egutera begira egon bear du: ipar ala ego aldera ukullua egon ezker, neguan otzegi, udan berogĭ izaten da.

5.<sup>o</sup> Ukullu'ko atea, zabala izan bedi: bi bei uztartuak aisa igarotzeko (pasatzeko) eran. Leyoak, luzeak baño zabalak obe, eta iru beien-dako leyo bat bezela. Leyoak eguteran beti atera. Ukulluan bestalde-tik, ego aldetik ere leyo bat edo geigo atera, ukullua errez aizeatzearen.

6.<sup>o</sup> Leyoak (ez sayetera estu itxusiak) ukulluko goi-zornaren inguruan atera bear dira, ta leyarraz (kristalez) isten diranak, eta irikitzen errezak.

7.<sup>o</sup> Beiaren tokia 2'50 metro luze, 1'30 zabal eta 4 metro gora izan bear du.

8.<sup>o</sup> Ukulluko zorua, zulo gabea, lana edo berdiña ta bei-ondotik ukullu erdira aldapa piskat duna izan bear du. Beiaren zimauro ta gerun (txisa) ba gañerako anabasak bera jua ditezen da aldapatxo ori.

9.<sup>o</sup> Bei askak edo ganbelak, gogorak eta zabu-gabeak izan bear dira: 40'tik 50 zentimetro gora ta 70'tik 80 dezimetro kubiko edeiten (kabitzen) dituzten sakonak. Aska bateko beiak bestearan aska eziñ iritxi lezaken eran jarri.

10. Ukullu'ko beroa epela, 12 koska edo gradu izan bear du.

11. Iñaurki biguña (oso geyegi ez) jarri bear zaye beiai. Larrua erratzaz ta uraz egurtzi ta garbitzea oso ona da bearentzat. Uda berrin ta azkenean illea moztutzea ere bai kopetan ta isatsan.

## BIGARREN ZATIA. — ABERE-ZAMARIAK

Erridia (nacioa) aberatsa izateko, abere etxekozi asko bear dituzte bertako gizonak, ta banakatu ongi zeñ abere zertako dan egokia ta nola abere berari etekiñ eta onurarik aundiena kendu lezayoken.

Zaldiari gaiñera igotzen jakitea ez da aski zaldi-endak (arrazak) garbi ezagutu ta abegotutzeko.

Gizonen jakinduri ta azkartasuna gauzak egiteko ta antolatzekeo dira, ez gauzak berenez gizonaren eskubetan itxu itxuan jartzeko.

Ganadua eroria ta kemengetua dagola, guziok dakigu. ¿Zer egiñ ba sendotzeko? ¿Zer bear ote da? Iru gauza bear dira ganadu edo abere mota guziak sendogotzeko.

*Dirua, jakinduria ta lanean iraupena.*

*Dirua aurreratu edo luzatu* bear diote langille txiroari (pobrea'ri) Gobernuak, Diputazioak edo erri bakoitzak.

*Jakinduria* bear dute *erasleak* (beteriñarioak).

Eta *iraupena* langilleak abere-jabeak bigarren edo irugarren aldiko estaliak (zezenai gurutzatzea) berak uste zuan abeasunik eta onurarik ekarrioz ezpadio, etxi ez dezan ta jarraitu dakion erasleen esanetatik.

Gañera aberea, enda berriaz obeagotu arren, laguntzen ezpazayo ukullu txukuna, jan ona ta begirasun egokia ezarriaz, alperrik izango dira Colling, Diskley eta Bakewel erasle jakintzuen azkartasun guziak.

(«Memoria Zootécnico-sanitaria correspondiente a Navarra», por Pascual Luna y Tomás Rota, inspectores de Higiene Pecuaria. Premiada en el Concurso Nacional de Ganados celebrado en Madrid el año 1913.)

Memoria orretatik ateratzen ditut onoko irakaste abek:

«Zootecnia'k» dirakas edo irakusten du abere etxekoyak nola ugaldtu, obegotu ta onuraldu (utilizar), jan egokienak eman da ekekiñ edo ekoitzpen (rendimiento) geyena kentzeko.

Abere etxekoyak eman dezateke onura-errezkada au: indarra, aragia, esnea, koipea illea, lumak, zimaurre edo korotza, sitsa t'abar. Lurra erabiltzeko bear bearra da ba abere etxekoya ta bere etekiña, indarra, zimaurre t'abar. Ez jakiñez, basetxetarrak ez die kentzen beren abere etxekoyai kendu lezayeken etekiñ guzia.

FELIPE AYERBE



# ABEREA MAITE DUNA GIZON ZENTZUNDUNA

(Jarraipena.)

Zaidi, bei, ardi zerri, abereak dira Gipuzkoan onragarrienak. Enda jakiñ-erabakinkez dago zaldietan, *normanda*, *bretón*, *percherón* eta abar nasturik dabiltzelako emengo zaldietan. Naste au sortzen da batzuk zaldia lan aztunetarako, besteak agudo ibiltzeko organ (cochean), abek gaiñean jarri-ta ibiltzeko, ayek ontarako ta artarako gaiñera bear izaten dutelako.

Artzayak eta mendi urruti-etan bizi diranak, bear dituzte beorrak zama aundiak kalera ta jesteko: astoak berriz, urruti-etara juateko gauza dira baña zama ariña gañean jarri ta.

Errotariak ere beorrak eukitzen dituzte saku iriñak baserririk urruti-enetara eramateko. Zaldiak eta mandoak baserrietarako ez dira egiten, lan egitea beste alderdirik ez dutelako. Zaldiak ez du ematen ez esnerik ez aragirik beyak lez, eta baso, mendi malkardietan lurra maneaten ibiltzeko ez dira gauza; orbel iñaurkuna narratzeko, egurra etxeratzeko t-abar geldi ta begiz aldatzetan ibilliko dan aberea bear da bei-idiak lez, ez zaldiki mandakoak.

\*  
\* \*

Aralar Burumendi (Beasain Beizama bitarteko mendiak) Lastur Kanpantzar eta beste mendi aundietan azitzen dira Gipuzkoan moxal, beoka zaldizkiak. Zumarraga-Urretxu-tan Lotazillaren (Abenduaren) 13 Santa Luziz egiten dira erri edo peri aundiak eta Parantze (Francia) Auña (Pirineo) aldeko tratolariak eramaten dituzte emendik moxal, bear eta zaldi koskor geyenak.

Baserrietan beor-zaldirik geroz gutxigo bear da, bazo mendietan itxiturak eta esparruk egiten ari dira-ta. Zaldizkiak ostera, zabal ibilli nai izaten du belardietan, eta auzoko barrutira sartu dala ta eztala baikuntzak (denuncias) izaten dira eta auzi-aserreak zaldi beor jabearen eta barruti jabearen artean.

Bizkaiko zaldi-enda aundigoa da Gipuzkoan bertako enda baño.

Zaldi-azidun (reproductor) ona jartzea ez da azki, enda ederrak ugaritzeko. Alde askotara begiratu bear da gañera, nun nola, zein zertarako-t-abar.

Parantze ko Bretainatik Burgete (Naparra) aldera ekarri izan dira zaldi-enda politak, eta Naparran ugaltzen asi ere bai.

Oraingoz Naparran dauden onentxonetako zaldikiak 18 illabete dituztenak neurri abek dauzkate.

Aundiroya (talla erdizka).	1,39	metro.
Soinkurutz jira . . . . .	1,64	—
Gerri luzero erdia . . . . .	1,41	—

Oso zaldi bikaiñak izateko gutxi bat bako (palta).

*Ponei* zalditxo bizkorrak ere bai dira Naparran. Gipuzko goyerriñ ere bai dira, Bergara-Antzuola inguruetan. Ikusi izan ditut biziak eta lirañak zaldi iraundu gabeak eta alare otzan eskurakoyak. (Zaldi iraundi gabea geyenetan izugia ta bizigia izaten da bezatzen (domatzen) gaitza.)

(*Ponei* enda ori ludiaren ego (Sur) bazterrak ikusi nairik juaten diran gizon ausarditsuak erabiltzen dute elur-izotz gañean orgak (trineos) narratzeko. Bañan Noruegan, Eskozian eta Alaskan (Ipar Amerika) izaten diran *ponoi* zalditxo oyeke oraindikan txikigoak dira emen Euzkadin ikusten diranak baño.)

## ABERE ZAMARI-KORRAK

Iztuetak (Gipuzkoako kondairan 167g. ingoski edo pajinan) dauzka zamari-lerro (illara) abek.

Garaiño	Zaldi	Mando
Gañezari	Zaldiño	Mandaeme
Gegua	Moixal	Mandako
Beor	Potxo	Asto
Beoka		Astoeme
		Astokume

Abere umeta au eintsu (proporción) batean zegoan Iztueta bizi zan garayen, idazten bai zuan euzkozale onek, zania-abereetara nekazariak etzutela jartzen atara ta ardurarik abere txee (geria edo ardi-elea) ta azienda beltzetara (zerri t-abar) bezela. Ikusten dutela, dio, baserritarrak argiro zaldiz t-abar ainbeste jazkuntza ta etekin ez dutela izaten, ta Gipuzko barruko jayotarrak nayago dutela jardun nekazaritzan edo lurgintzan ikatzkiten meatza ateratzen burnigintzan itxas lanetan eta beste bearkai neketsuetan ezen ez ibilli zaldi mutil edo mando zaintzari Nayago ere dituztela idi ta beyak lan gogorretarako zaldi ta mandoak baño.

\*  
\* \*

Zaldi gai onezaz iñun irakurri ez detan jakingaya jarri nai det gauzak ziara ta garbi ikasteko. Kaletar asko bai dira zaldizku abereak nola ugaltzen diran ezdakitenak.

Beorra (beti emea da) ta zaldia (arra) elkar estali ezkeru, (umetzeko) amaika illabete-tik amabi illabetera bear dira moxala jayotzen.

Moxalak izaten dira beokak ala zaldiñak.

Astarraz beorra estali ezkeru, jayotzen da mandoa, emea ala arra.

(Mandoak umerik izaten eztu.)

Astaemea zaldikiñ kastigatu (baserritarren itza) edo estali, umetu ezkeru, jayotzen da mandako arra ala emea.

Mando au txikia iraten da baño agitz (oso) gogorra ta bizkorra.

Araban asko sayatzen omen dira mandako abek azitzen, urte bete garrengo 250 peseta ta balio izaten dutelakoz.

Astaemea umetzen bada, iru duro ta bost duro ta ordaintzen ei da.

\*  
\* \*

*Beia* ume eske edo ernari jartzen danean esaten da, *Susara* dago beia.

Beorra edo astaemea ernari jartzen diranean: *Iel dago beorra.*

Ardia ernari jartzen danean: *Arkera dago.*

Zerria ernari jartzeko aldiak jotzen dunean: *Irausi dago.*

*Susara, I el, arkera, irausi* (dago) esatea aski da jakiteko *abelgorria, zamaria, geria* (abere txee ardi ta) ala *azienda beltza* (zerria ta) ume eske dagon igartzeko.

Erderaz osteru, beti berdin dasate (esaten dute): *la vaca está alta, la yegua está alta, la oveja está alta, la cerda está alta.* (Iztueta, 168.)

FELIPE AYERBE

# ABEREA MAITE DUNA GIZON ZENTZUNDUNA

(Jarraipena.)

## GERIA EDO ARDI-ELIA

Abere txee edo geria'ren izenaz adierazten dira:

Ari.	Bildots.	Aker.
Moixo.	Arkume.	Akertxikiro.
Aritxikiro.	Aixuri.	Auntz.
Ardi.	Umerri.	Auntztika.
Bein-ardi.		Auntxume.

Ardi gaizaz ez det jarriko edozeñek dakin ikasti agiririk. Ardiak ematen ditula esnea, bildotxa ta illea; esnez gaztak egiten dirala; illea, arroa, ogei bat pesetan saltzen dala urte abetan, edozeñek bai daki.

Iztueta'tar Jon Iñaki'ren garayen, arroa gaztak sei peseta batatz beste egiten zuan azokan (perian).

Orañ ogeita bostetik ogeita amabost bitarte ¡bai da aldea!

(Iztueta jayo zan Zaldibin 1967-garren Lotazillan (Abenduan) eta ill zan 1845-garren urtean Zaldibin, irurogeita emezortzi urte zitula.)

Baso-mendietan burme (alambre) itxiturak egiten ari dira ta, len ainbat artalde ez da ikusten Gipuzkoa'n, orañ abel gorriari laka kentzen bai zayo aragia saldu-ta.

Udan, artzayak aisa dabilte mendietan, bañan negu beltzean, nai ta nai ez, erribera ordeka lur-bigunetara jetxi bear larrarik billatzekotan.

Gipuzkoa'tik Parantze'ra arditza aundiak eramaten dituzte emengo ardia angoa baño piñangoa da-ta.

Emengo illea batez ere, oso ederetxia izaten da jantziak egiteko.

Zaldibia'n omen dago Doixtarren bat (Alemanen bat) Parantze'tik igesi etorri-ta.

Parantzen ille-ola'ren artezkari (diretore) omen zeguan, ta eskuan artu, illea ta nolanai antolatzen omen du jantzkia.

Gipuzkoa'n ere Parantzen ta Doixlandan (Alemani'n) lez *ille-olak* egin bear lirakela omen dio, emen bezelako illerik beste inun ez dagolata. Gañera *ur-txinboak* (presak) ugari dira Gipuzkoa'n.

\*  
\* \*

Artalde bakoitza, eun ardi ta ogei bildots urte betekoak gotzen da. Ogei ogeitamar bat ardi saldu edo kentzen dira urtero, onela, lau bost urte barru artalde guzia gastetzen dalarik.

Ardia erostera dijuanak, artaldetik aukera izatearien, artzayari peseta bat edo bi geigo eskeintzen dio, bañan ardirik txarrenak aukeratzten ditu oso aditua ezpaldin bada. ¡Artzaya beti ardi onakin, orrela! Eun arditatik larogeita sei umegitekoak edo ernari geratzen dira: amalau bat artantzu ta illurto gertatzen dira.

Ardia, urtean bein bakarrik arkea edo ume eske jartzen da, ta sei-zortzi egun irauten dion arkea izaten du. Dagonill (Agosto) Agor aldean aria botatzen zaye ardia'ri.

Illabete buruan, eun ardiko artaldea estaltzen du ariak.

¡Ona ibiltzen da ba aria ardiak umetzen; arrotu-ta, puztu-ta, jateko ere aztirik artzen ez dula!

Aldi ortan, aria'ri zaldalea (pentsua) ematen diote artzayak: belarrik ez.

Ariak, illetsua ta zabala izan bear du, ta artaidera bota baño len, ondo zaldaletu bear da.

Uda'ko bost illabete'etan egiten ditu artzai bakoitzak bere artaldeak ematen dion esneaz 50 arroa gazta bezelatzu.

Bi motxaldietan, 13 arroa ille gauza gutxi gora bera kenduko ere diozka.

Gazta egiten duten aldietan, gazuraz bazkatuko ditu guriro bost edo sei zerrikume beren amarekin.

\*  
\* \*

Len goyen jarri det Gipuzkoa'n ardia urritzen ari dala, ta abel-gorria ugaritzen, aragiak diru aundia egiten dulako orain aldian.

Republika Arjentina'n berori jaso edo agitzen (gertatzen) da. Ona zer dion P. Dechambre'k «Tratado de Zootecnia» 515 ingoski edo pajina'n.

«Una de las consecuencias del aumento del rebaño bovino de la Argentina, es la disminución del rebaño ovino. De 106 millones que tenía ésta en 1898, descendió a 68 millones en 1908, y a 67 millones en el año 1910.

»Según la ley general de los países nuevos, el carnero que fue el primero en llegar, desaparece poco a poco ante el buey, animal exigente pero más productivo. El mismo merino cede ante el Lincoln y demás carneros productores de carne. El ganado ovino, se ve cada vez más arrojado hacia las partes centrales, dejando al buey instalarse en el litoral y en todos los puntos donde penetran las vías férreas. Las condiciones de su explotación están, pues, modificadas desde hace un coarto de siglo.»

FELIPE AYERBE

(Jarraituko da.)



# ABEREA MAITE DUNA GIZON ZENTZUNDUNA

(Amaya.)

Gaztelanin zezenak zeyan (plazan) ikusi nayago dituzte beyak ume-  
tzen baño.

Ebros-andikaldetik lurr gorria ikusten da begiak basterrak arrapatu  
ala guzian.

Costa erkaltzale (errepubliano) burutsuak esan bazuan ere «mas  
corderos que trisquen en la fresca yerba en aquellos parajes que va y  
viene: inútilmente el arado», eta Mallado, luditzleak (geólogo), bere  
«Explicación del Mapa geológico de España», «las cuatro quintas par-  
tes del territorio de la nación son pedregales, impropios para el cultivo  
y sólo útiles para bosques y pastos», alare, Kastillan eziñ erabaki dira  
abelgorria izateko bideak irikitsera.

1912 garren urtean Tesifonte Gallego, kiragarri edo publicatu (ba-  
rreatu) zuan «Memoria relativa a los servicios de la Dirección General  
de Agricultura, Minas y Montes», artzen ditut zenbaki-kopuru abek:

«De la superficie total del territorio español (1) se destinan: trece  
millones 192.587 hectáreas al cultivo de cereales y leguminosas; un mil-  
lón 454.494 al de la vid; 1.338.879 al del olivo; 458.889 al de los ár-  
boles frutales; 394.961 al de tubérculos, raíces y bulbos; 106.212 al de  
plantas horticolas; 300.741 al de plantas industriales, y 24.751.548 a pas-  
tos y forrajes.

»Estas cifras suman un total de 42.000.000 de hectáreas en núme-  
ros redondos; aun quedan 17.000.000, que se han de cubrir de pastos  
y bosques, si no queremos que sean desiertos y eriales.

»Toda esta superficie, es decir, el 47% de la superficie total de Es-

(1) Españak dauzka 580.980 kilometro laurki edo kuadrado; edota 59 millo  
ectarea.

paña, no puede criar otra cosa que árboles y ganados; de aquí una imperiosa necesidad de proteger a la ganadería con la misma solicitud y cuidado que los árboles y peces; a la repoblación forestal debe seguir la repoblación ganadera.

»La ganadería tiene que ser un factor importante a la economía nacional cuando la política hidráulica surta sus beneficiosos efectos, transformando en regadío las 2.500.000 hectáreas de que es susceptible el suelo hispano. Se dedicarán en su mayor parte al cultivo forrajero, habrá algo para llevar un rayo de nuestro sol aprisionado en una fruta a Inglaterra, según frase acertada de Costa, pero en su mayor parte serán alfalfares y demás prados artificiales que han de transformarse en carne, leche, lana, etc.»

### AZIENDA BELTZA EDO ZERRIAK

Iztuetak (168 nigoskian) dakarzki izen abek:

Apote	Zerri
Bargo	Zerrama
Bangasta	Arkotx
Ordots	Zer-ardi

Txerrikume asko eramaten dute Ordiziatik (Billafranka-tik) asteazkeneuo Bizkai aldera. Ezkurra ugari dan basetxetan, serra errez irozotzenda (sostener) ta merke. Albiztur-en bada baserria Mardakuluts, ogeitamarretik gora txerri basotan aritzen dituna.

Galdetu izan diet emen Andua-ko (Erkio-n) kontxuntxu edo Santa Luzi ostatuan gana igarotzen diran Bizkaitar txerri tratalarrei zergaitik Bergaran, Elgetan ta Bizkai aldean txerrikumarik azitzen ez duten, oiturarik ez dala erantzun izan didate.

Bañan, asertian jakin det, Ordizia-ra biltzen diran txerri-tratalariak elkar itz eman-da daudela Bizkaira txerrikume ordotsik edo arrik ez eramateko, onela eak orrela Gipuzkoan erosi ta Bizkaian saldu diru geigo irabasteatik.

Ormaiztegi-ko, Santa Luziko ta ostatuetan asteazken inularretan ta ostegun goizetan, txerrikume ordotxen irantzea izaten da. ¡A ze txillio eta iskanbilla ateratzen duten!

Gu, mutill kozkor satitxuak giñanean irantzen ari ziradenen inguruan egon bear genduan.

—¡Alde egizazue emendik, bestela zuek ere irandu egingo zaituztegu! esaten ziguen irantzalle ta tratalariak.



## EGAZTIAK

(Iztuetak, 195 nigoskian.)

Ollarra	Usoa
Olloa	Usakumea
Gangoya (kapoya)	Ataa
Ollaiskoa	Antzarra
Ollandea	Indiollaara
Txitoak	

Arr-txintxorra dagon tokian olloa ibilli ezkerro arrantza askor geigo egiten du. Zaperoa ta ura maiz eman bear zaye olloai arrantzak ugari egitekoz. Garita arto ezea ez da ona egaztientzat.

## AZKENA

Bukatu degu azal-gai au oraindikan aneika gauza jarri leizken arren. Ortarako dira berarizko idartzak, eta guri eskatu zaigu Gipuzkoa-ko abere guzien izenez zenbait esateko, ta aldeguna egin degu.

FELIPE AYERBE

